
23-11-2024/01-12-2024
Titirijai
42.NAZIOARTEKO TXOTXONGILO
JAIALDIA
42.FESTIVAL INTERNACIONAL DE
MARIONETAS

## SARRERAK | ENTRADAS

Helduen sarrera | *Entrada adulto* .....................7 €

Haurren sarrera | *Entrada infantil*.....................4 €

Sarrera Murriztua | *Entrada Reducida*

- Familia ugaria | *Familia numerosa*
- Pentsiodunak | *Pensionistas*
- Aniztasun funtzionala | *Diversidad funcional*
- Langabeak | *Desempleados/as*
- TOPIC-eko lagunak | *Amigos del TOPIC*



Helduen sarrera | *Entrada adulto* .....................5 €

Haurren sarrera | *Entrada infantil*.....................3 €

topic.

Jaialdiko ikuskizun guztietarako sarrerak **www.topic.eus** atarian daude salgai baita TOPIC-eko leihatilan ere.

Ordutegia:

asteartetik ostiralera,
10.00etatik 13.00etara eta
16.00etatik 19.00etara;

asteburua,
10.30etatik 14.00.etara eta
16.00etik 19.30era.

Astelehenetan itxita.

*Las entradas para todos los espectáculos del festival están a la venta en **www.topic.eus** y en el TOPIC.*

*Horario:*

*de martes a viernes,*
*de 10.00 a 13.00 y*
*de 16.00 a 19.00 horas;*

*fines de semana,*
*de 10.30 a 14.00 y*
*de 16.00 a 19.30 horas.*

*Lunes cerrado.*

Euskal Herria Plaza, 1 | 20400 Tolosa
Tel.: 943 650 414
email: cit@cittolosa.com
www.cittolosa.com
www.topic.eus

# AURKEZPENA
## PRESENTACIÓN

Jaialdi bati hasiera ematea beti da pozgarria eta zirraragarria, baina TITIRIJAIk 41 edizio daramatza, eta, horregatik, are gehiago pozten gaitu hirugarren urte honetan programa hau zuzendari gisa aurkezteak. Tamalez, Txetxo Gaztañagak, Txantxoaren eta Titirijaiko hainbeste kartelen sortzaileak, hutsune bat utzi du TOPIC-en. Era berean, zentro honek edizio honetan, 15 urte beteko ditu ateak ireki zituenetik. Hori dela eta, TITIRIJAI berezia da guztiontzat. Halaber, Tolosako txotxongiloaren nazioarteko zentroa izaten jarraitzen duen sendotasuna eta berrikuntza ospatuko dira 15. urteurren honetan.

TITIRIJAIren ardatzak txotxongilo artearen programazioa, prestakuntza eta dibulgazioa izaten jarraitzen dute; hori dela eta, 9 egun hauetan Tolosan aretoan eta kalean aritzen diren konpainiez gozatu ahal izango da, nazio zein nazioarte mailakoak. 42. edizio honek sortzaile gazteen aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta, horregatik, txotxongilo eta objektuen diziplinara hurbiltzen diren euskal konpainia berrientzako lekua egongo da. Era berean, Zaches antzerki talde italiarrak, UNIMA Euskal Herriarekin duen lankidetzari esker, eskainiko duen irudi antzerkiaren berrikuntzari buruzko ikastaro trinkoa burutuko da.

Joan den edizioak izan duen arrakasta bertaratutakoei eskertu nahi diegu eta aurten ere babes hori izango dugulakoan gaude. Tolosara txotxongilo emanaldi ikusgarriak ikusteko aukera oparitzen duen jaialdira etortzera animatzen zaituztegu.

Dar comienzo a un festival es siempre ilusionante y vibrante, pero el TITIRIJAI lleva a sus espaldas ya 41 ediciones y por ello, nos enorgullece aún más presentar este programa como directores este tercer año. Lamentamos la pérdida de Txetxo Gaztañaga, creador del Txantxo y de tantos carteles del Titirijai que ha dejado un vacío en el TOPIC. A su vez, en esta edición este centro cumplirá 15 años desde que abrió sus puertas y esto hace que este TITIRIJAI sea especial para todos/as. Se celebrará la solidez e innovación que el centro internacional del títere de Tolosa sigue siendo en este 15 aniversario.

Los ejes del TITIRIJAI continúan siendo la programación, la formación y la divulgación del arte del títere; por ello, estos 9 días en Tolosa se podrá disfrutar de compañías que actúan en sala y calle, de carácter nacional e internacional. Esta 42 edición, sigue apostando por creadores jóvenes, y por ello, habrá espacio para nuevas compañías vascas que se acercan a la disciplina del títere y objetos. Y a su vez, se llevará a cabo el curso intensivo sobre la innovación en el teatro de figura que impartirá la compañía italiana Zaches, gracias a la colaboración con UNIMA Euskal Herria.

Queremos agradecer el éxito obtenido la edición pasada en cuanto al público asistente y este año seguiremos sumando nuevo público al TITIRIJAI. Por ello, os animamos a visitar el festival que ofrece la oportunidad de ver funciones de títeres espectaculares en la población de Tolosa.



TOPICeko zuzendaritza | Dirección del TOPIC
Juanjo Herrero Mansilla
Estitxu Zaldua Domingo

# IKUSKIZUNAK
## ESPECTÁCULOS

Cía DI FILIPPO | Piuma
Cía ÁNGELES DE TRAPO | Error 404
Cía ONÍRICA MECÁNICA | Verne
Cía PEA GREEN BOAT | Soy una ciclopeta
Cía LA LOQUACE | Viva!
Cía DI FILIPPO | Variations
Cía CAL TEATRO | CERA 500 horas de vuelo
Cía COMPAGNIE L'ALINÉA | Petites Histoires sans Paroles
Cía TÍTERES ETCÉTERA | Peio eta Otsoa
Cía LA TENDIA | La isla de las cosas perdidas
Cía ZACHES TEATRO | Cenicienta
Cía LA PUNTUAL | MELODAMA o la Venganza de una Huérfana Rusa
Cía ZACHES TEATRO | Caperucita Roja
Cía BAYCHIMO TEATRO | El Árbol Rojo
XIMURRAK konpainia | Ximurrak
Cía GUILLEM ALBÀ | Ma Solitud
ZURRUNKA konpainia | Birakolore
MALETAS MÁGICAS konpainia | Marionetas desde tan cerca que las puedes tocar
Cía EL LAGARTO BAILA | IzAdi
IXO TEATRO konpainia | Eros





# PIUMA

## DI FILIPPO

ITALIA

**Azaroak 23 noviembre**

12:00

Plaza Berria | Plaza Nueva

Familiarra | Familiar

30'

Hitzik gabe | Sin palabras

Haria | Hilo



**Ikusle gutxi batzuentzako diseinatua, gertutik jarraitu beharra dago ikuskizun hau mugimenduen xehetasunez eta Piuma txotxongiloaren (28 cm-ko altuera) eta Remo txotxongilolariaren (176 cm-ko altuera) arteko elkarrekintzez gozatu ahal izateko.**

**Zer gertatuko da hain ezberdin diren bi pertsonaia horien artean?**

Diseñado para un público reducido, este espectáculo está pensado para ser visto de cerca para que el público pueda disfrutar de los detalles de los movimientos y de las divertidas interacciones entre el títere Piuma (28 cm de altura) y el titiritero Remo (176 cm de altura).

¿Qué puede pasar entre estos dos personajes tan diferentes?



# ERROR 404

## ÁNGELES DE TRAPO

MALAGA

**Azaroak 23 | 24 noviembre**

- 17:00
- TOPIC Miguel Arreche aretoa
  TOPIC Sala Miguel Arreche
- 7 urtetik aurrera | A partir de 7 años
- 50'
- Hitzik gabe | Sin palabras
- Mahai txotxongiloa | Títere de mesa



***Error 404*** **haur eta gazteei zuzenduriko hitzik gabeko ikuskizun bat da. Ikusle horiek geroz eta ohituago daude teknologia berrietara, Steve gure pertsonaia nagusia bezalaxe: bizitza sinple eta ohikoa duen gaztea, geroz eta murgilduago dago teknologia-gailuz beteriko mundu batean.**

*Error 404* es un espectáculo sin palabras dirigido a la infancia y a la juventud, un público cada vez más habituado a las nuevas tecnologías, como Steve, nuestro personaje principal, un joven común y corriente con una vida simple y rutinaria, sumergido cada vez más en un mundo repleto de aparatos tecnológicos.



PRE ESTRENO

# VERNE

## ONÍRICA MECÁNICA

MURTZIA

**Azaroak 23 noviembre**

18:00

TOPIC antzokia | Teatro TOPIC

7 urtetik aurrera | a partir de 7 años

60'

Idioma HItzik gabe | Sin palabras

Objektuen eta teknologiaren opera
Ópera de objetos y tecnología



**Sortzeko gure gaitasuna urritzen duen egungo ezkortasunetik aldenduta dauden kontaketak sortzea ahalbidetzen duten imajinarioak eraiki eta bizitzeko gonbite bat da lan hau. Gudu berriak borrokatzeko, urrutiko lekuak konkistatzeko aukera ematen digun eta ezberdin egiten gaituen giza-ezaugarria nabarmentzen duen leku bat: imajinatzeko gure gaitasuna.**

Esta pieza es una invitación a construir y habitar imaginarios en los que volver a generar relatos alejados del pesimismo actual que merma nuestra capacidad creadora. Un lugar donde vencer nuevas batallas, conquistar lugares lejanos y poner en valor la cualidad humana que nos hace diferentes: nuestra capacidad de imaginar.



# SOY UNA CICLOPETA

## PEA GREEN BOAT

KATALUNIA & ERRESUMA BATUA

**Azaroak 24 | 25 | 26 noviembre**

18:30 (24) | 10:00 (25) | 10:00 (26)

Leidor aretoa | Teatro Leidor

Familiarra | Familiar

50'

Gazteleraz / Castellano

Txotxongilo eta aktoreak
Títeres y actores



**Eskola-jazarpenaz eta honek protagonistarentzat dakarren estigmatizazioaz hitz egiten du ikuskizunak. Alegiazko munduan, Odeta bere kabuz dabil, Polifemo ziklopeak eta Odiseok pertsonifikatzen dituzten itzalen eta argien artean. Pertsonaia zaintzaile horiekin biziko dituen egoerak irakaskuntza bat dira, eguneroko bere mundura bueltatu ahal izateko.**

El espectáculo habla del acoso escolar y la estigmatización provocada en la protagonista. En el mundo imaginario, Odeta transita por sus medios, por sus sombras y luces, personificadas en el cíclope Polifemo y Odiseo. Las situaciones vividas con estos personajes mentores son un aprendizaje con el cual volverá a su mundo cotidiano.



# VIVA!

## LA LOQUACE

FRANTZIA

**Azaroak 24 noviembre**

19:30

TOPIC antzokia | Teatro TOPIC

16 urtetik aurrera | a partir de 16 años

75'

Gaztelania | Castellano

Objektu antzerkia | Teatro de objetos



**Diktadura betean, Espainiako Gerra Zibilaren ostean izandako feminizidio baten istorioa da *VIVA!*. Umorearen botere salbatzailea sekula ez ahaztu gabe, *VIVA!* ikuskizunak egintza indibidualetan dagoen erantzukizun kolektibo inplizitua aztertzen du, gizarte batek bere funtsa zuzentzeko, eraldatzeko duen gaitasuna.**

*VIVA!* es la historia de un feminicidio cometido en plena dictadura, tras la Guerra Civil española. Sin olvidar en ningún momento el poder salvador del humor, *VIVA!* se interroga sobre la responsabilidad colectiva implícita en los actos individuales, sobre la capacidad de una sociedad a reparase, a transformarse.





# VARIATIONS

## DI FILIPPO

ITALIA

**Azaroak 25 noviembre**

10:30 | 12:30
TOPIC antzokia | Teatro TOPIC
Familiarra | Familiar

50'
Hitzik gabe | Sin palabras
Haria | Hilo



***Variations*** **ikuskizuneko protagonista Proto da, aukera izugarriak dituen txotxongilo bat. Protok badaki harietara lotua dagoela eta bizirik mantentzen duten bi 'figura' dituelaz jakitun da. Bere bizitasunari esker, ironiaz eta poesiaz landuko ditugu teknologia, hauskortasuna eta egiatan garenaren kontzientzia bezalako gaurkotasun handiko gaiak.**

El protagonista de *Variations* es Proto, un títere con maravillosas posibilidades. Proto sabe que está apegado a los hilos y es perfectamente consciente de tener dos 'figuras' que le ayudan a estar vivo. Gracias a su vitalidad atravesamos con ironía y poesía temas de gran actualidad como la tecnología, la fragilidad y la conciencia de quiénes somos en realidad.



# CERA 500 HORAS DE VUELO

## CAL TEATRO

KATALUNIA

**Azaroak 25 noviembre**

19:00 | 21:00

TOPIC Miguel Arreche aretoa
TOPIC Sala Miguel Arreche

Helduak | Adultos

50'

Gaztelania | Castellano

Objektuak | Objetos



**Erle baten bizitza hegaldi-ordutan neurtzen omen dela diote: bostehun ordu, hain zuzen ere. Kasete zahar batzuk oinarri hartuta, bizitza baten, gorputz baten, argizaria bezalaxe etengabe aldatzen diren oroitzapen batzuen zatiak berreraikitzen dira. Zenbaitetan azkar, beste batzuetan astiro bizi izan den denbora bat, erle baten hegaldiaren pare.**

Dicen que la vida de una abeja se mide en horas de vuelo: quinientas horas contadas. A partir de unas viejas cintas de cassette se reconstruyen fragmentos de una vida, de un cuerpo, de unos recuerdos siempre en constante trasnformación, como la cera. Un tiempo vivido unas veces rápido y otras lento, como el vuelo de una abeja.



# PETITES HISTOIRES SANS

## COMPAGNIE L'ALINÉA

FRANTZIA

**Azaroak 26 noviembre**

| | |
|---|---|
| 10:30, 12:30, 20:00 | 50' |
| TOPIC antzokia / Teatro TOPIC | Testu gabe \| Sin texto |
| Familiarra \| Familiar | Eskularrua \| Guante |

### Poltsa handiko otsoa

**Bitxiki antzekoak diren hiru txotxongilok poltsa jatun batekin egin dute topo.**

**Otso ankerraren mitoaren moldaketa berria eskuko txotxongilo, poltsa eta makilarako.**

**Txotxongiloen manipulazio klasikoa, Lyon estiloko eskuko txotxongilo neutrotarako.**

### El lobo de la bolsa grande

Tres marionetas extrañamente parecidas se encuentran con una bolsa voraz.

El mito del lobo feroz revisitado para los títeres de mano, el bolso y el palo.

Manipulación de títeres clásica para títeres de mano neutros al estilo Lyon.




## Sisifo txikia

**Nahiko apetatsua den txotxongilo batek eusten duen eskua deskubritu eta aurre egingo dio. Txotxongiloaren lehen agerkunde bat, esku hutsaren adierazkortasuna esploratzeko. "Besteei egiten diedana neure buruari egiten diot" nozioaren alegoria. Manipulazio sentikorra txotxongiloetan, eta esku hutsez.**

## El pequeño Sísifo

Un títere un tanto caprichoso descubre y se enfrenta a la mano que lo constituye. Una primera revelación del títere para una exploración de la expresividad de la mano desnuda. Una alegoría de "lo que hago a los demás, me lo hago a mí mismo". Manipulación sensible en títeres y con la mano desnuda.



## Edipo

**Titulu-kabinaren mugetatik ihes egiteko bere ahaleginean, titulu batek txotxongilolaria bere gordelekutik atera du. Gaizki tratatuko du, askatasuna lortzeko. Tituluen standetik ikus daitekeen manipulazioa.**

## Edipo

En su afán por escapar de las limitaciones de la cabina de títulos, un título logra sacar al titiritero de su escondite. Lo maltrata para lograr su libertad. Manipulación visible desde el stand de títulos.





# PEIO ETA OTSOA

## TÍTERES ETCÉTERA

ANDALUZIA

**Azaroak 27 | 28 noviembre**

Fotografía: Javier del Real ©

10:00 (27) | 10:00, 12:30 (28)
Leidor aretoa | Teatro Leidor
Familiarra | Familiar

45'
Euskara | Euskera
Marotte, hagaxka eta antzerki iluna argi ultramorearekin
Marotte, varilla y teatro negro con luz ultravioleta

**Aitonarekin landa-eremuan bizi den mutil bat da Peio. Alai bizi da bertan, zuhaitz eta animalia artean jolasean. Gose den otso bat basotik irten eta Peioren lorategiko urmaelean bizi den ahatea irentsi du. Mutila, baina, ez da kikilduko eta bere txoriaren laguntzarekin, otsoa harrapatuko du abilezia eta kemen handia agertuz. Ehiztariak otsoaren bila etorri dira baina Peio otsoa lotua dauka ordurako. Guztion artean, zoologiko edo natura-erreserba batera eramatea erabaki dute.**

Peio es un chico que vive con su abuelo en el campo, donde es feliz jugando entre árboles y animales. Un lobo hambriento sale del bosque y devora al pato que vive en la charca del jardín de Peio. Pero el niño no se asusta, y ayudado por su pajarito, lo atrapa con astucia y valentía. Los cazadores llegan buscando al lobo, pero este ya ha sido atado por Peio. Entre todos deciden llevarlo al zoológico o a una reserva natural.



# LA ISLA DE LAS COSAS PERDIDAS

## LA TENDIA

MURTZIA

**Azaroak 27 | 30 noviembre**

- 10:30, 12:30 (27) | 12:00 (30)
- TOPIC antzokia | Teatro TOPIC
- Familiarra | Familiar
- 50'
- Gaztelania | Castellano
- Zuzeneko manipulazioa
  Manipulación directa



***La isla de las cosas perdidas*** **ikuskizunean espartzuz eginiko txotxongiloak erabiltzen dira. Memoriaz eta bere desagerpenaz, itsasoaz eta hondoratzeez, iraganaz eta etorkizunaz hitz egiten digu lan honek.**

*La isla de las cosas perdidas* es un espectáculo de títeres hechos con esparto que habla de la memoria y de su desaparición, del mar y los naufragios, del pasado y del futuro.



# CENICIENTA

## ZACHES TEATRO

ITALIA

**Azaroak 27 | 28 noviembre**

- 20:00 (27) | 10:30, 12:30 (28)
- TOPIC antzokia | Teatro TOPIC
- 4 urtetik aurrera | A partir de 4 años
- 55'
- Gaztelania | Castellano
- Objektu antzerkia, txotxongiloak, dantza eta itzalak
  Teatro de objetos, títeres, danza y sombras



**Printze urdinaren bilaketari buruzko istorio baino, Zaches Teatroren *La Cenicienta* maitagarri-ipuin iniziatiko bat da, non heldutasunerako bide zaila iraganarekiko atzetzetik igarotzen baiten.**

Más que una historia sobre la búsqueda del príncipe azul, *La Cenicienta* de Zaches Teatro es un cuento de hadas iniciático en el que el difícil camino hacia la madurez pasa por el desapego del pasado.



# MELODAMA o la Venganza de una Huérfana Rusa

## LA PUNTUAL

KATALUNIA

**Azaroak 28 noviembre**

- 20:00
- TOPIC antzokia | Teatro TOPIC
- 16 urtetik aurrera | A partir de 16 años
- 65'
- Hitzik gabe | Sin palabras
- T Txotxongilo katalana | Títere catalán



**Sophie umezurtza bere izebarekin bizi da eta ez daki zer den amodioa. *Melodama* lanak bere istorioa kontatzen du. Amodioa aurkitu duela uste duenean, bere sareetan harrapatuta geldituko da eta gehiegitan gertatzen den ohi bezala, pertsona okerraz maitemindu da.**

*Melodama* explica la historia de Sophie, una huérfana que vive con su tía y no conoce el amor. Cuando cree encontrarlo queda atrapada en sus redes y como demasiado a menudo sucede, se enamora de la persona equivocada.



# CAPERUCITA ROJA

## ZACHES TEATRO

ITALIA

**Azaroak 29 noviembre**

10:00 | 20:00

TOPIC antzokia | Teatro TOPIC

4 urtetik aurrera | A partir de 4 años

45’

Gaztelania | Castellano

Txotxongiloak, maskarak eta itzalak
Marionetas, máscaras y sombras

**Bertsio guztietan, Txanogorritxo bere amaren umetokiaren esfera babesletik aldendu eta bakarrik aurkitzen da basoan. Misterio, lilura, tentazio eta transgresioz beteriko leku bat.**

**Dantza, txotxongiloak eta jatorrizko musika dira istorioa kontatzeko erabiliko diren erreminta delikatuak.**

En todas las versiones Caperucita Roja inevitablemente se aleja de la esfera protectora del útero de su madre y se encuentra sola en el bosque. Lugar de misterio y encanto, de tentación y transgresión.

La danza, los títeres y la música original son las delicadas herramientas a través de las cuales contar la historia.



# EL ÁRBOL ROJO

## BAYCHIMO TEATRO

GAZTELA ETA LEON

**Azaroak 29 | 30 noviembre**

10:30, 12:30 (29) | 17:00 (30)

Leidor aretoa | Teatro Leidor

7 urtetik aurrera | A partir de 7 años

50'

Gaztelania | Castellano

Zuzeneko Manipulazioa
Manipulación directa



**Bederatzi urteko neskato batek bere nortasunaren bila egiten duen bidaia kontatzen du ikuskizun honek. Bidaian zehar, une alaitsuak barne hartzen dituen bere aterpe txikia ere aurkitu ahalko du eta salbatu, uzkurduratik aldendu eta babestuko duen haize adiskidearen putza bilatzen ikasiko du.**

Este espectáculo cuenta el viaje de una niña de nueve años en busca de su propia identidad. Un viaje donde también podrá encontrar su pequeño refugio habitado por momentos felices y donde aprenderá a buscar el soplo de viento amigo que la rescate, la lleve lejos del desánimo y la ponga a salvo.



# XIMURRAK

## XIMURRAK

EUSKAL HERRIA

**Azaroak 29 noviembre**

18:30

TOPIC Miguel Arreche aretoa
TOPIC Sala Miguel Arreche

8 urtetik aurrera | A partir de 8 años

35'

Euskara | Euskera

Maskarak eta objektu manipulazioa
Máscaras y manipulación de objetos



**Aiton-amonek beti sukaldatzen dizkigute plater gozoak, maitasuna adierazteko beraien modua izan ohi da. Baina zerbaiten truke sukaldatzen dute? Ez da pentsatu ere! Maitasuna baldintzarik gabekoa da. Edo agian ez?**

Las abuelas y abuelos siempre nos cocinan platos deliciosos, suele ser su forma de expresar amor. ¿Pero cocinan a cambio de algo? ¡Ni pensarlo! El amor es incondicional. ¿O quizás no?”



# MA SOLITUD

## GUILLEM ALBÀ

KATALUNIA

**Azaroak 30 noviembre**
**Abenduak 1 diciembre**

- 18:30, 20:00 (30) | 20:00 (1)
- TOPIC Miguel Arreche aretoa
  TOPIC Sala Miguel Arreche
- 12 urtetik aurrera | A partir de 12 años
- 25'
- Hitzik gabe | Sin palabras
- Umorea, txotxongiloak eta antzerki bisuala
  Humor, títeres y teatro visual

**Ikuskizun berrian, bere erroetara bueltatu da Guillem Albà: bere unibertso bisual berezira. Oraingoan, txotxongiloen eta formatu txikiko komikotasunaren eta hurbileko esperientzia kolektibo kartsu baten bitartez.**

El nuevo espectáculo de Guillem Albà es un regreso a sus raíces: su característico universo visual. Esta vez a través de los títeres y la comicidad de pequeño formato y de una vibrante experiencia colectiva de proximidad





# BIRAKOLORE

## ZURRUNKA

EUSKAL HERRIA

**Azaroak 30 noviembre**

- 11:30 | 17:30
- Euskal Herria plaza | Plaza Euskal Herria
- Adin guztientzako | Para todos los públicos
- 60'
- Gaztelania | Castellano
- Giza tamainako gorputz txotxongilo Ibiltariak
  Títeres de cuerpo de talla humana Itinerante

**Basilio eta Valeria ekintzara pasatzeko, beren bizitzako ekintzarik garrantzitsuena izan daitekeena gauzatzea erabaki duten bi pertsona nagusi dira. Jakinduriaren legatua, landareekiko, haziekiko eta bizitza-zikloen naturarekiko harremana ekarriko dituzte gure kaleetara. Egungo eta biharko belaunaldietarako opari bat.**

Basilio y Valeria son dos personas mayores que han decidido entrar en acción, tal vez la acción de su vida. Traerán a nuestras calles el legado de la sabiduría, el contacto con las plantas, las semillas y la naturaleza de los ciclos de la vida. Un regalo para las generaciones presentes y futuras.



# MARIONETAS DESDE TAN CERCA QUE LAS PUEDES TOCAR

## MALETAS MÁGICAS

EUSKAL HERRIA

**Azaroak 24 - 30 noviembre**

12:00 (24) | 12:30 (29)
Plaza Berria | Plaza Nueva
Ikuskizuna + Tailerra | Espectáculo + Taller
Familiarra | Familiar

120'
Gaztelania | Castellano
T Haria | Hilo



**Nire izena Karlos da, eta txotxongilolaria naiz, jaialdi honen fruitua naiz, eta festibalak betetzen dituen 42 urte hauek dira ni lanbide honek irentsi dituen urteak.**

**Mugimenduaren poetika**

**Irudien eraikuntzan erabilitako artea**

**Pertsonaia txiki horiei aplikatzen zaizkien dramaturgiak**

**Eta irudimen eta zentzugabekeriaren kartazal hori gure tresnak dira, gure eguneroko ogia, erakutsi nahi dugun horretara iristeko.**

Me llamo Karlos y soy titiritero, soy fruto de este festival y estos 42 años que cumple son los que yo computo como abducido por esta profesión.

La poética del movimiento

El arte empleado en la construcción de las figuras

Las dramaturgias aplicadas a estos pequeños personajes

Y esa envoltura de imaginación y tonterías son nuestras herramientas, nuestro pan de cada día, para llegar a aquello que queremos mostrar.



# IZADI

## EL LAGARTO BAILA

MADRIL

**Abenduak 1 diciembre**

12:00

Leidor aretoa | Teatro Leidor

0 eta 3 urte bitartean | De 0 a 3 años

35'

Hitzik gabe | Sin palabras

Gorputzezkoa | Corporal

**Zentzumenen munduaren oda. Soinu-paisaia bat eta bidaia sentsorial bat lengoaia primitiboan zehar. *IzAdi* ikuskizunak Japoniako haiku olerkietan bilatu du bere koreografia-inspirazioa, genero hori haurrei zuzenduriko joko eszeniko bat bilakatzeko.**

Una oda al mundo de los sentidos. Un paisaje sonoro y un viaje sensorial a través del lenguaje primitivo. *IzAdi*, naturaleza en euskera, busca inspiración coreográfica en la poesía japonesa -denominada haiku- para transformar este género en un juego escénico dirigido a la infancia.



# EROS

## IXO TEATRO

EUSKAL HERRIA

**Abenduak 1 diciembre**

17:00

TOPIC antzokia | Teatro TOPIC

Familiarra | Famailiar

85’

Hitzik gabe | Sin palabras

Maskara antzerkia
Teatro de máscaras

**Bi pertsonek bikote-harreman bati hasiera ematen dioten istorio horietakoa dugu hau. Biak sentitzen dute elkar gustuko ez izatearen beldurra, biak kikiltzen dira egia mingarriei aurre egiterako garaian eta biek dute bestearen aurrean zaurgarri azaltzeko lotsa. Horrexegatik maskaratzen dira.**

Esta es una de esas historias en las que un chico y una chica comienzan una relación de pareja. Una de esas historias en las que por miedo a no gustar, por pudor a mostrarse vulnerable y por terror a que las verdades duelan, los dos enamorados se enmascaran.



ELKARLANA | COLABORACIÓN

# DANTZERTI

## Azaroak 25 noviembre

12:30

Leidor aretoa | Teatro Leidor

**Bigarren urtez jarraian, DANTZERTI arte dramatiko eta dantzako goi mailako eskola TOPIC-ekin elkarlanean arituko da modu egonkorrean, Diziplina arteko proiektuen laborategia Ilren esparru pedagogikoaren barruan. Bertan, arte dramatikoko eta dantzako ikasleek astebetez lan egin dute Italiako Zaches Teatro konpainiaren Luana Gramenga taldearekin. Espezialitate bakoitzeko bi irakasleek Dantzerti-n hiru hilabetez egindako lana erakusteko artistak emandako tresna pedagogikoak garatu dituzte. TOPIC-i esker, Tolosako ikastetxeekin bitartekotza-lana egin ahal izango da, eta TITIRIJAI jaialdiaren barruan dantzaren, txotxongiloen eta interpretazioaren diziplinarteko emaitza zabaldu ahal izango da.**

Por segundo año consecutivo, la escuela superior de arte dramático y danza DANTZERTI colaborará de forma estable con el TOPIC dentro del marco pedagógico del Laboratorio de proyectos interdisciplinares II donde el alumnado de arte dramático y danza han trabajado una semana con Luana Gramenga, de la compañía italiana Zaches Teatro. Las dos docentes de cada especialidad han desarrollado las herramientas pedagógicas aportadas por la artista para mostrar el trabajo realizado durante tres meses en Dantzerti. Gracias al TOPIC se podrá realizar el trabajo de mediación con los centros educativos tolosarras y difundir el resultado interdisciplinar de danza, títeres e interpretación dentro del festival TITIRIJAI.

# JARDUNALDIAK
## JORNADAS

LIBURUEN AURKEZPENAK | PRESENTACIONES DE LIBROS

- TITIRITARI, Malen Amenabar & Miren Amuriza
- Los secretos del titiritero & La extraordinaria vida de Polichinela, Paco Paricio

SENIDETZEA | HERMANAMIENTO

- La Puntual, La Casa de los Títeres de Abizanda & TOPIC

OSPAKIZUNA | CELEBRACIÓN

- TOPIC-en 15. URTEURRENA | 15 ANIVERSARIO DEL TOPIC

OMENALDIA | HOMENAJE

- L'ESTAQUIROT TEATRE

LIBURUAREN AURKEZPENA
PRESENTACIÓN DEL LIBRO

# TITIRITARI

## Malen Amenabar & Miren Amuriza




**Azaroak 26 noviembre**

17:00

TOPIC Anbigu aretoa
TOPIC sala ambigu

**Poema liburu ilustratu bat da Titiritari, haur zein helduentzakoa; irakurtzekoa, kantatzekoa, jolas egitekoa. Portal 71 eta Anita Maravillas-eko kideek elkarlanean eginiko antzerki-ibilbidea dute abiapuntuan testuek zein irudiek. Horien guztien nondik norakoez arituko dira Miren Amuriza (idazlea) eta Malen Amenabar (ilustratzailea) Iñigo Astiz kazetari eta idazleak gidatuta. Literaturaz eta teatroaz; bilaketaz eta esperimentazioaz; txotxongiloez, hariez, titiritariez.**

Titiritari es un libro ilustrado de poemas, dirigido tanto a niños como a adultos; para leer, cantar y jugar. Los textos y las ilustraciones tienen como punto de partida el recorrido teatral realizado en colaboración por los miembros de Portal 71 y Anita Maravillas. Sobre todo ello hablará Miren Amuriza (escritora) y Malen Amenabar (ilustradora), guiados por el periodista y escritor Iñigo Astiz. Hablarán sobre literatura y teatro; sobre la búsqueda y la experimentación; sobre marionetas, hilos y titiriteros.

LIBURUAREN AURKEZPENA
PRESENTACIÓN DEL LIBRO

# LOS SECRETOS DEL TITIRITERO

## Paco Paricio




### Azaroak 26 noviembre

17:00

TOPIC Anbigu aretoa
TOPIC sala ambigu

**Eskuliburu baino, Paco Pariciren liburua txotxongiloaren gramatika bat dela esan genezake; izan ere, arauak, formulak, aholkuak, ohiturak, amarruak, errutinak, sentsazioak, uneak, etenaldiak, debekatzeak, bizkortzeak, barreak, teknikak, definizioak, hitz egitearen, gorputzaren eta eskuen gauzak eta ikastun jatunena ere aseko duten beste hainbat gai biltzen baititu.**

**Bokazio- eta eskuzabaltasun-dosi handiei esker katalizatu den sintesi-esfortzu bat. Paco Paricio bete-betean.**

Más que como un manual, el libro de Paco Paricio lo podríamos definir como una gramática del títere, pues en él hay reglas, fórmulas, consejos, costumbres, trucos, rutinas, sensaciones, momentos, suspensiones, prohibiciones, aceleraciones, risas, técnicas, definiciones, cosas del habla, del cuerpo y de las manos y un sinfín temático capaz de saciar el hambre del más voraz de los aprendices.

Un esfuerzo de síntesis catalizada por altas dosis de vocación y generosidad. Puro Paco Paricio.

# LA EXTRAORDINARIA VIDA DE POLICHINELA

## Paco Paricio




**Azaroak 26 noviembre**

17:00

TOPIC Anbigu aretoa
TOPIC sala ambigu

**Urte luzez eta bisitatu dudan leku guztietan, Polichinelaren bizitzaren arrastoak aurkitzen saiatu naiz. Eta, azkenean, bere bidaldi osoa bildu ahal izan dut: hemen duzue. Jolas, iseka eta probokaziorako bere joera nondik datorkion deskubrituko duzue.**

**Polichinelak beste izen asko ditu atzerrian: Guignol, Petruska, Barrigaverde, Paprika Jancsi, Kasperl, Karaguiosis, Kaspárek, don Cristóbal, don Roberto, Punch, eta abar. Eta, gustuko ez badugu ere (baita alderantziz ere), Europako nortasunaren mamitzat jo beharko genuke.**

Desde hace años y en todos los lugares a los que voy he ido rebuscando rastros de la vida de Polichinela. Al fin he podido reunir su periplo completo: aquí lo tenéis. Comprobaréis de dónde le viene a ese pícaro su afán de juego, burla y provocación.

Polichinela recibe en otros países nombres como Guignol, Petruska, Barrigaverde, Paprika Jancsi, Kasperl, Karaguiosis, Kaspárek, don Cristóbal, don Roberto, Punch, etcétera, y tal vez deberíamos considerarlo, mal que nos pese (o bien que nos parezca), esencia de la identidad europea.

SENIDETZEA / HERMANAMIENTO

# La Puntual, La Casa de los Títeres de Abizanda & TOPIC

## Azaroak 27 noviembre

18:30

TOPIC Anbigu aretoa
TOPIC sala ambigu

**Hiru txotxongilo-etxe, Tolosako TOPIC, Bartzelonako Teatro La Puntual eta Abizandako (Huesca) La Casa de los Títeres etxea senidetu egin dira. Eta horretarako, beren pribilejioak eta konpromisoak, eskubideak eta betebeharrak, hau da, hiru aldeek asumitu dituzten erantzukizunak jasotzen dituen kontratu bat sinatu dute. Merkataritza-izaerarik ez duen eta legearen zein kapitalaren mende ez dagoen kontratu bat; aitzitik, bizikidetzaren etorkizunerantz ezberdintasunetik jauzi egiten duena. Ekitaldi hauek berezkoa duten solemnitate libertario osoz sinatuko dute akordioa hiru aldeek: Pilar Amorósek eta Paco Pariciok La Casa de Abizandaren izenean, Eugenio Navarrok eta Néstor Navarro Salvanyk Bartzelonako Antzokiaren izenean eta Juanjo Herrerok eta Estitxu Zalduak Tolosako TOPIC-aren izenean.**

**Toni Rumbau Notario Txotxongilolariak irakurri, onetsi eta errubrikatuko du dokumentua.**

Tres casas titiriteras, el TOPIC de Tolosa, el Teatro La Puntual de Barcelona, y La Casa de los Títeres de Abizanda, en Huesca, se hermanan. Y lo hacen mediante un contrato, con sus privilegios y sus compromisos, sus derechos y sus deberes, es decir, con responsabilidades asumidas por las tres partes. Un contrato que ni es mercantil ni está sometido al imperio de la ley ni del capital, sino que salta hacia el futuro de la convivencia desde la diferencia. Las tres partes firmarán el acuerdo con la solemnidad libertaria que requieren estos actos: Pilar Amorós y Paco Paricio, por la Casa de Abizanda, Eugenio Navarro y Néstor Navarro Salvany por el Teatro de Barcelona, y Juanjo Herrero y Estitxu Zaldua por el TOPIC de Tolosa.

Leerá, aprobará y rubricará el documento Toni Rumbau, Notario Titiritero



OSPAKIZUNA | CELEBRACIÓN

# TOPIC-en 15. URTEURRENA

## 15 ANIVERSARIO DE TOPIC

**Azaroak 28 noviembre**

17:00

TOPIC Anbigu aretoa
TOPIC sala ambigu

**Duela 15 urte TOPIC-en irekiera ospatzen ari den data berezi batera hurbiltzen ari gara, eta urteurren honek bere lekua izango du Titirijaiko txotxongiloen nazioarteko jaialdiaren esparruan. Horretarako, urte hauen ondoren euren esperientzia eta ikuspegia partekatu eta hasierako proiektuaren sortzaileei ahotsa emango dieten pertsonak bilduko ditugu.**

**Estatu osoan bakarra den zentro honen etorkizuneko ildoak eraikitzen jarrai dezaketen galderak egingo dira.**

Nos acercamos a una fecha especial que celebra la inauguración del TOPIC hace 15 años y este aniversario tendrá su espacio en el marco del festival internacional de títeres del Titirijai. Para ello, reuniremos a aquellas personas que puedan compartir su experiencia y su visión tras estos años, dando voz a aquellos/as creadoras del proyecto inicial.

Se llevarán a cabo preguntas que puedan ayudar a seguir construyendo las líneas futuras de este centro único en todo el estado.



OMENALDIA / HOMENAJE

# L’ESTAQUIROT TEATRE

## Azaroak 29 noviembre

17:00

TOPIC Anbigu aretoa
TOPIC sala ambigu

**Bere 50. urteurrena dela eta, plazera dugu L’Estaquirot Teatre konpainiari omenaldi hunkigarri bat iragartzeko, txotxongiloen eta antzerki bisualaren munduan erreferente den taldea. Mende erdi batez, L’Estaquirot Teatre-k belaunaldiak liluratu ditu txotxongiloen bidez istorioak kontatzeko duen gaitasun paregabearekin, mundu osoko agertokietara eramanez bere ekoizpenak.**

**1973an sortua, konpainia aitzindaria izan da adierazpen modu berriak aztertzen eta giza balioa, soziala eta kulturalak transmititzen, arte eszenikoan aztarna ezabaezina utzi duten ikuskizunen bidez.**

**Bere kideek 17:00etan doako bisita gidatua eskainiko digute gaur egun erakusgai dugun erakusketan, lanen ikuspegi pertsonal eta sakonago bat eskainiz.**

Con motivo de su 50 aniversario, nos complace anunciar un emotivo homenaje a la compañía L’Estaquirot Teatre, referente en el mundo de los títeres y el teatro visual. Durante medio siglo, L’Estaquirot Teatre ha cautivado a generaciones con su inigualable capacidad para contar historias a través de las marionetas, llevando sus producciones a escenarios de todo el mundo.

Fundada en 1973, la compañía ha sido pionera en explorar nuevas formas de expresión y transmitir valores humanos, sociales y culturales a través de espectáculos que han dejado una huella imborrable en el arte escénico.

Sus integrantes nos ofrecerán a las 17:00 una visita guiada gratuita a la exposición que actualmente tenemos expuesta ofreciéndonos una mirada más personal y profunda de sus obras.

# ERAKUSKETAK
## EXPOSICIONES

L´ESTAQUIROT TEATREren 50 urte
50 AÑOS DE L´ESTAQUIROT TEATRE

TXOTXONGILO ERAKUSKETA TOLOSAKO ERAKUSLEIHOETAN
EXPOSICIÓN DE TÍTERES EN LOS ESCAPARATES TOLOSARRAS

TXETXO GAZTAÑAGAren KARTEL ERAKUSKETA
EXPOSICIÓN DE CARTELES DE TXETXO GAZTAÑAGA



# L´ESTAQUIROT TEATREren 50 urte
## 50 AÑOS DE L´ESTAQUIROT TEATRE



**Irailak 27 septiembre – Martxoak 9 marzo**

TOPICeko aldi baterako erakusketa aretoa
Sala de exposiciones temporales de TOPIC

€ 4€ helduak_adultos
3€ haurrak_niños



**Bost hamarkada hauetan zehar, L'Estaquirot Teatre antzerki komunitatearentzat inspirazio iturri izan da, bere ekoizpen berritzaileekin eta bikaintasun artistikoarekiko duen konpromiso sendoarekin ikusleak liluratuz.**

**Erakusketa honetan, L'Estaquirot Teatreren historia liluragarrian murgilduko gara, hasiera xumeetatik antzerki munduko gaur egungo garrantzira arte, txotxongiloen, argazkien, dokumentu historikoen, jantzien eta eszenako objektuen bidez.**

Durante estas cinco décadas, L'Estaquirot Teatre ha sido un faro de inspiración para la comunidad teatral, deslumbrando a audiencias con sus producciones innovadoras y su compromiso inquebrantable con la excelencia artística.

En esta exposición, nos sumergiremos en la fascinante historia de L'Estaquirot Teatre, desde sus humildes comienzos hasta su prominencia actual en el mundo del teatro, a través de títeres, fotografías, documentos históricos, vestuario y objetos escénicos.



# TXOTXONGILO ERAKUSKETA TOLOSAKO ERAKUSLEIHOETAN

## EXPOSICIÓN DE TÍTERES EN LOS ESCAPARATES TOLOSARRAS

**Azaroak 23 noviembre – Abenduak 1 diciembre**

Tolosako saltokietan
Comercios de Tolosa



**TOPIC-ek Tolosa & Co-rekin batera txotxongilo erakusketa bat antolatuko du Tolosako saltokietako erakusleihoetan, Titirijai jaialdiarekin batera. Edizio honetan, Nafarroako Gobernuak TOPIC-i utzitako Retablo de Figurillas konpainiaren txotxongiloak izango ditugu ikusgai.**

TOPIC junto a Tolosa & Co. organizará una exposición de títeres en los escaparates de los comercios de Tolosa coincidiendo con la celebración del festival Titirijai. En esta edición, expondremos los títeres de la compañía navarra Retablo de Figurillas que el Gobierno de Navarra cedió al TOPIC.



# TXETXO GAZTAÑAGA

## KARTEL ERAKUSKETA
## EXPOSICIÓN DE CARTELES

**Azaroak 23 noviembre – Abenduak 1 diciembre**

TOPIC-eko sarrera
Hall del TOPIC

**Txetxo Gaztañagaren omenezko kartelen erakusketa Euskal Herriko diseinatzaile grafiko garrantzitsuenetako baten bizitza eta lana ezagutzeko ibilbidea da. 20 urte baino gehiagoz TOPIC eta TEE erakundeekin lankidetza estuan aritu zen, Txantxoren irudi ikonikoa eta Titirijai jaialdiaren garapenean funtsezko parte bat izan zen.**

**Ikusgai dagoen kartel bakoitzak ikusizko komunikazioan duen maisutasuna, euskal kultura eta nortasunarekin duen konpromisoa eta modu erraz eta kolore zirraragarrien bidez mezu ahaltsuak transmititzeko duen gaitasuna islatzen ditu. Erakusketak Gaztañagaren ondarea berrikustera gonbidatzen ditu ikusleak, artista eta diseinatzaileentzako erreferente izaten jarraitzen baitu.**

La exposición de carteles en homenaje a Txetxo Gaztañaga es un recorrido por la vida y obra de uno de los diseñadores gráficos más influyentes del País Vasco. Durante más de 20 años fue un estrecho colaborador del TOPIC y del CIT, creó la imagen icónica del Txantxo y fue parte fundamental en el desarrollo del festival Titirijai.

Cada cartel expuesto refleja su maestría en la comunicación visual, su compromiso con la cultura y la identidad vasca, así como su capacidad para transmitir mensajes poderosos a través de formas sencillas y colores impactantes. La muestra invita a los espectadores a redescubrir el legado de Gaztañaga, cuya obra sigue siendo un referente para artistas y diseñadores.

# TAILERRA
## TALLER

KALEKO TXOTXONGILO TAILERRA
TALLER DE TÍTERES CALLEJERO






# KALEKO TXOTXONGILO TAILERRA
## TALLER DE TÍTERES CALLEJERO

**Azaroak 24 - 29 noviembre**

18:00 (24) | 17:00 (29)

Euskal Herria plaza
Plaza Euskal Herria

**Titirijai'24 Jaialdian zehar kaleko txotxongilo tailerrak eskeiniko ditugu publiko guztiarentzat. Tailer hauetan, hagaxka-txotxongiloak eraikuntzan oinarrituko gara eta bi pertsonaia landuko ditugu, usoak eta dragoiak. Txotxongilo eta istorio ezberdinak sortuko ditugu eta elkarrekin txotxongiloei bizitza emango diegu.**

**Tolosa eta txotxongilo jaialdia biziarazteko prest?**

Durante el Festival Titirijai'24 ofreceremos talleres de títeres callejeros para todo el público. En estos talleres nos centraremos en la construcción de títeres de varilla y trabajaremos dos personajes, palomas y dragones. Crearemos diferentes títeres e historias y juntos daremos vida a los títeres.

¿Preparados para dar vida a Tolosa y al festival de títeres?

# egitaraua | programa

- LEIDOR
- TOPIC
- TOPIC MIGUEL ARRECHE
- TOPIC AMBIGU
- KALEA / CALLE
- ZIRKUITO / CIRCUITO
- TAILERRA / TALLER

## 23
LARUNBATA | SÁBADO

| | |
|---|---|
| 18.00 | PRE-ESTRENO<br>ONÍRICA MECÁNICA<br>**VERNE** |
| 17.00 | ÁNGELES DE TRAPO<br>**ERROR 404** |
| 12.00 | DI FILIPPO<br>**PIUMA**<br>PLAZA BERRIA |
| 17.00<br>EIBAR | L´ALINEA<br>**PETITES HISTOIRES SANS PAROLES** |

IG

| |
|---|
| 18.30 |
| 19.30 |
| 17.00 |
| 12.00 |
| 11.30-12.30<br>ZARAUTZ |
| 16.30<br>ORDIZIA |
| 18.00 |

## 27
ASTEAZKENA | MIÉRCOLES

| | |
|---|---|
| 10.00 | ETC TEATRO<br>**PEIO ETA OTSOA** |
| 10.30<br>12.30 | LA TENDÍA<br>**LA ISLA DE LAS COSAS PERDIDAS** |
| 20.00 | ZACHES<br>**CENICIENTA** |
| 17:00 | SENIDETZEA \| HERMANAMIENTO<br>**LA PUNTUAL, LA CASA DE LOS TÍTERES DE ABIZANDA & TOPIC** |
| 10.30<br>PASAIA | DI FILIPPO<br>**VARIATIONS** |

## 28
OSTEGUNA | JUEVES

| | |
|---|---|
| 10.00<br>12.30 | ETC TEATRO<br>**PEIO ETA OTSOA** |
| 10.30<br>12.30 | ZACHES<br>**CENICIENTA** |
| 17:00 | OSPAKIZUNA \| CELEBRACIÓN<br>**TOPIC-en 15. URTEURRENA**<br>**15 ANIVERSARIO DE TOPIC** |
| 20.00 | LA PUNTUAL<br>**MELODAMA** |
| 10.30<br>PASAIA | LA TENDÍA<br>**LA ISLA DE LAS COSAS PERDIDAS** |

O

| |
|---|
| 10.00<br>20.00 |
| 10.30<br>12.30 |
| 18.30 |
| 17.00 |
| 19.00<br>SESTAO |
| 18.00<br>DONOSTIA |
| 10.30<br>PASAIA |
| 17.00 |

## 24
;ANDEA | DOMINGO

PEA GREEN BOAT
**SOY UNA CICLOPETA**

LA LOQUACE
**¡VIVA!**

ANGELES DE TRAPO
**ERROR 404**

MALETAS MÁGICAS
**MARIONETAS DESDE TAN CERCA...**
PLAZA BERRIA

DI FILIPPO
**COLGANDO DE UN HILO**

L´ALINEA
**PETITES HISTOIRES SANS PAROLES**

**TAILERRA | TALLER**
EUSKAL HERRIA PLAZA

## 25
ASTELEHENA | LUNES

10.00 — PEA GREEN BOAT
**SOY UNA CICLOPETA**

12.30 — ELKARLANA | COLABORACIÓN
**DANTZERTI**

10.30 12.30 — DI FILIPPO
**VARIATIONS**

19.00 21.00 — CAL TEATRE
**CERA**

10.30 PASAIA — L´ALINEA
**PETITES HISTOIRES SANS PAROLES**

## 26
ASTEARTEA | MARTES

10.00 — PEA GREEN BOAT
**SOY UNA CICLOPETA**

10.30 12.30 20.00 — L´ALINEA
**PETITES HISTOIRES SANS PAROLES**

17.00 — AURKEZPENA | PRESENTACIÓN
**PORTAL 71 & PACO PARICIO**

10.30 PASAIA — ZACHES
**CAPERUCITA ROJA**

19.00 SESTAO — DI FILIPPO
**VARIATIONS**

## 29
ıSTIRALA | VIERNES

ZACHES
**CAPERUCITA ROJA**

BAYCHIMO
**ÁRBOL ROJO**

XIMURRAK
**XIMURRAK**

URTEURRENA | ANIVERSARIO
**L´ESTAQUIROT TEATRE**

ETC TEATRO
**PEIO ETA OTSOA**

L´ALINEA
**PETITES HISTOIRES SANS PAROLES**

ANGELES DE TRAPO
**ERROR 404**

**TAILERRA | TALLER**
EUSKAL HERRIA PLAZA

## 30
LARUNBATA | SÁBADO

17.00 — BAYCHIMO
**ÁRBOL ROJO**

12.00 — LA TENDÍA
**LA ISLA DE LAS COSAS PERDIDAS**

18.30 20.00 — GUILLEM ALBÁ
**MÁ SOLITUD**

11:30 17:30 — ZURRUNKA
**BIRAKOLORE**
EUSKALHERRIA PLAZA

12.30 — MALETAS MÁGICAS
**MARIONETAS DESDE TAN CERCA...**
PLAZA BERRIA

18.00 SESTAO — L´ALINEA
**PETITES HISTOIRES SANS PAROLES**

17.00 DONOSTIA — DI FILIPPO
**VARIATIONS**

## 01
IGANDEA | DOMINGO

12.00 — EL LAGARTO BAILA
**IZADI**

17.00 — IXO TEATRO
**EROS**

20.00 — GUILLEM ALBÁ
**MÁ SOLITUD**

17.00 DONOSTIA — ÁNGELES DE TRAPO
**ERROR 404**

18.00 HONDARRIBIA — L´ALINEA
**PETITES HISTOIRES SANS PAROLES**

16.45 BEASAIN — DI FILIPPO
**COLGANDO DE UN HILO**



topic.

EL DIARIO VASCO

cit

REMARKABLE ARTS FESTIVAL
EUROPE FOR FESTIVALS
FESTIVALS FOR EUROPE
EFFE LABEL 2019-2021

TOLOSALDEA

TOLOSA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

inaem

kutxa fundazioa

RiTTO
RED DE FESTIVALES
INTERNACIONALES DE TEATRO DE
TÍTERES Y OBJETOS DE OTOÑO